

## **Arabako Foru Aldundiak 256.000 euroekin lagunduko du Kanpezuko adinekoentzako etxebizitza komunitarioa**

**Gasteiz, 2021eko ekainaren 29a.** Gaur goizean Foru Gobernu Kontseiluak onetsi du Kanpezuko Udalarekin lankidetzaren hitzarmen berria sinatzea, zeina baita udalerrira horretako mendekotasun moderatua duten adineko pertsonen etxebizitza komunitarioaren kudeaketan eta funtzionamenduan laguntzeko. Arabako Foru Aldundiak aurtun 256.000 euro bideratuko ditu udal baliabide hori finantzatzera.

Kanpezuko etxebizitzak 14 egoiliarrentzako lekua du eta eguneko arretako beste lau plaza.

Mendekotasun moderatua (1 maila) duten adinekoentzako etxebizitza komunitarioek, baliabide txikiak izan arren, kalitatezko arreta eskaintzen diete Arabako Lurralde Historikoan sakabanaturik dauden herriei. Haien ezaugarri nagusia da bertan bizi diren pertsonak direla etxeke jarduerak antolatzen eta kudeatzen dituztenak, behar duten kanpoko laguntzarekin.

Etxebizitzen titularrak udalak badira ere, Arabako Foru Aldundiak udal horiekin lankidetzaren hitzarmenak izenpetuta dauzka, haien bidez etxebizitzen kudeaketa eta mantentze lanak finantzatzeko.

Kanpezun dagoen etxebizitza komunitarioaz gainera, Amurrio, Guardia, Asparrena eta Espejoko herriek ere badaukate baliabide mota hori. Denek jasotzen dute aldundiaren finantzaketa.